

Herri-juezak, erdaldunak?

Deia, 1977-08-20.

Ba dirudi batzutan, gauzak dauden baino nahastuago eta eztabaidatuagoak egin nahi ditugula.

Ez atzo, hitzik ez genuenean; baita oraintxe bertan ere. Hara hemen Andoain-go herrian gertatzen ari dena:

Orain arte juez izan denak, utzi egin du. Herrikoseme eta euskalduna zen. Juez edo epaikari bat joaten denean, legezko da beste bat jartzea. Arduratu da norbait hontaz, eta Frankoan bageunde bezalako agintekeriarekin, joan berri diren hauteskondeetan herriak gehien atera duten alderdiekin ere kontsultarik egin gabe. Tolosa-eskualdeko juezak, alkateak bidalitako bost izenen artean (eta ba ziran tartean euskaldunak) euskeraz ez dakien bat aukeratu du.

Guk ez dugu, andoaindar edo ez, euskaldun ez delako inor diskriminatzen.

Hau, bakoitzaren arazoa da; batzutan, ikasteko erarik ere izan ez duelako, gainera. Baina ba dugu zerbait gure herri euskaldun bateko juezetarako euskerarik ez dakien norbait izentatzearen aurka.

Zergatik?

1.- Herri bateko juezak, herritar guzietan entzuteko eta hitzegiteko gai izan behar du, bertan hitzegiten diren hizkuntzak jakin behar ditu. Demokrazia, hemen ere erakutsi behar da, noski.

2.- Beste aldetik, Estatuto baten bidean goaz. Euskadi-k laster izango du berea. Eta orain arte egin diren proiektu guzietan erabakia geratu da hauzi hau: Majistratuak, Fiskalak, Juezak, Juezaren idazkariak, Notarioak eta Erregistradoreak euskeraz jakin behar dute. Eta hau, ez oraingo aurreproiektuan bakarrik, baita Primo de Riveraren diktadurapean egindakoan ere.

Hau legezkoa da, batez ere Andoain bezalako herri euskaldun batean.

Eta Andoaingo gertakari hau, beste batzuen jakingarri bezala salatzen dut.

Ez bestela.

Nik ez dut uste diskriminazioa denik; diskriminatuak, gu izan gera gure herrian orain arte, eta diskriminazio honen aurka dihoa, hain zuzen, euskeraz ez dakien juez-gai andoaindar honi egiten zaion objezioa.

Hau fede ona duen nornahik ulertu behar du.

Gaur agertu da Donostia-ko egunkari frankista batean andoaindar baten iritzia hontaz, herrian norbaitek egin duen objezio honen aurka.

Ba du, demokrazian, honetarako eskubidea; baina ez du demokraziarako balio duen arrazoirik.

Eta baldin baditu, esan ditzala.

Ia gure demokrazi hau guzian arrazoi-bideetatik osatzen hasten geran.